

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Estatuak Castejón-Iruña abiadura handiko linea Zaragoza-Altsasu ibilbidearekin lotzeko proiektuaren idazketa lizitatu du

*Ebro ibaiaren gainetik joango den biaduktua eraikitzea dago jasota tarte horren proiektuan*

Viernes, 25 de julio de 2014

Sustapen Ministerioak, Adif Alta Velocidad estatuko enpresaren bidez, etorkizuneko abiadura handiko Castejón-Iruña linea egungo Zaragoza-Altsasua linea arruntarekin lotzeko proiektuaren idazketa lizitatu du 589.684,71 euroren truke.

Gaur argitaratu da [kontratazioaren iragarkia](#) Estatuko Aldizkari Ofizialean, eta proposamenak irailaren 15era arte aurkeztu ahal izango dira. 18 hilabeteko epean amaituta egon beharko da proiektua.

0 deritzon tarte da, eta Castejón eta Iruña artean eraikitzen ari diren abiadura handiko lineari jarraipena ematea du helburu, linea hori, Castejón-Alesbes azpitartearen parean, eta dagoeneko eginda dagoen Zaragoza-Altsasua linea arrunta lotuta. Alternatibean aurretiazko azterlana idaztea eta oinarrizko proiektua eta bi lineen arteko loturaren eraikuntza-proiektua idaztea sartzen dira kontratuan.

Proiektuak lotura horretarako behar den plataforma zehaztuko du, xehetasunen azterketa teknikoak, bideen zein trenbideen behin-behineko egoerak eta hautatzen den agertokiaren arabera lotura egitea ahalbidetuko duten egungo linean gauzatuko diren jarduerak barne: trenbideak bi mailatan gurutzatzea, zabalerak aldatzekoa ezartzea, hirugarren erreia izatea etab.

Ebro ibaiaren gainetik pasatuko den biaduktua eraikitzeko hainbat irtenbide tekniko-ekonomiko ere proposatuko dira.

### Obren egoera gaur egun

Lizitazio horrekin, beste urrats bat egin da trenbide-azpiegituraren eraikuntzan. Gaur egun, 1.2 azpitarteko obrak (Cadreita-Alesbes) amaituta daude, eta datozen egunetan jasoko ditu Adifek. 1.1 azpitartearen kasuan (Castejón-Cadreita), aldiz, obren % 54,15 dago eginda.

Abiadura handiko trenen proiektua garatzeko Nafarroak eta estatuak sinatutako protokoloen arabera, lizitatu den idazketa administrazio zentralari zegokion. Zaragozatik Tuterarainoko eraikuntza-proiektuak eta Tuteratik Castejónerako bidearen informazio-azterlana ere egiten ari da.

Bestalde, Castejón eta Eskirotz arteko plataformaren proiektuak idaztea, desjabetzeko espedienteen kudeaketa administratiboan lankidetzan aritzea, Castejón eta Eskirotz arteko plataformaren obrak

gauzatzeko kontratazioa egitea eta plataformako obren hautazko zuzendari izatea da gozki Nafarroari.